

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresan hainbat motatako baliabideak erabiliko ditugu gure proiektua aurrera eramateko eta bezeroengana iristeko. Hauek izango lirateke gure funtsezko baliabideak:

- Fisikoak: Ikusi eta ikutu daitezkenak dira. Gure proiektua eta jarduerak aurrera eramateko funtsezko baliabideak, motorrak eta bulegoa dira. Motorrekin janaria etxeetara eraman ahalko genuke. Eta bulegoarekin, aldiz, gure jarduera leku zehatz batean kontrolatuko genuke. Behar ditugun beste baliabide fisiko batzuk, ordenagailua eta telefonoa dira.
- Intelektualak eta giza baliabideak: Ezin dira ez ikusi ezta ikutu ere. Gure aplikazioa mota honetako baliabidea da, honekin gure bezeroek eskaerak egin ahalko dituzte. Gutako bakoitzaren gaitasunak eta bakoitza zertan den ona kontutan hartuz bakoitzak honako ekintza hauek egingo genituzke: Ainhoa, enpresaren kontuak kontrolatzen eta egiten espezialista, Aimar, informatikan lizentziaduna eta garraioaren arduraduna Aitor, garraioaren arduraduna eta webgunearen antolaketa, Andrea, marketing eta bezeroekiko arreta, Fani, webgunearen antolaketa eta bezeroekiko arreta. Horrela bakoitzak dituen gaitasunak batuz enpresa sendo bat lortuko genuke.
- Finantza-baliabideak: Hauek gure proiektua finantzatzeko erabiliko genituzke. Hasieran enpresa sortzeko eta beharrezko gauzak erosteko eta geroago, enpresa ondo badoa eta ikusten badugu berrikuntzak eta hobekuntza behar ditugula, horretan inbertituko genuke enpresaren dirua. Hasieran, bakoitzak dituen aurrezkiak izango dira eta ondoren irabaziak erabiliko genituzke.

